

## I-ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **Maiatzaren 3ko 105/2021 Foru Agindua. Behin betiko onestea Iruraiz-Gaunako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedientea**

Iruraiz-Gaunako Udalak hasierako onespena eman zion Iruraiz-Gaunako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen 7. aldaketa puntualari 2020ko abuztuaren 24an, eta jendaurrean jarri zuen. Horretarako, iragarkiak jarri zituen ALHAOn (106. zk., 2020ko irailaren 18koa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarian (2020ko irailaren 16koa); horretarako ezarritako epean ez zen alegazioarik aurkeztu.

2020ko azaroaren 6an, Iruraiz-Gaunako Udalak erabaki zuen behin-behinean onestea Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 29ko 1/2021 bilkuran, espedientearen txostena egin zuen, eta ez zuen eragozpenik jarri, lurralde antolamendura egokitzeari dagokionez. URA-Uraren Euskal Agentziaren eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenak ere bidali zituen.

Aldaketa horri ez zaio ingurumen ebaluazio estrategikorik egin behar, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2020ko azaroaren 24an egindako txostenean jasotakoari jarraituz.

Iruraiz-Gaunako Udalak, 2021eko otsailaren 17an Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztutako idazki baten bidez, espedientea bidali zuen, behin betiko onets dadin.

Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko zuzendariaren 2021eko otsailaren 22ko idazkiaren bidez, espedientea osatzeko nahitaezko dokumentazioa aurkezteko eskatu zitzaion udalari, eta ohartarazi zitzaion dokumentazio hori bidali arte ez zela hasiko behin betiko onespenerako epea zenbatzen.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2021eko martxoaren 4an aurkeztutako idazki baten bidez, Iruraiz-Gaunako Udalak eskatutako dokumentazioa bidali zen.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatzea dagokie:

Lehenengoa.- Iruraiz-Gaunako Plangintzako Arau Subsidiarioen 7. aldaketa honen xedea da indarrean dagoen udal plangintzak babestutako eraikinen zerrendatik kentzea Azilu herriko kale bakarreko 4 zenbakian kokatuta dagoen eraikina, udalarena dena.

Iruraiz-Gaunako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak behin betiko onetsi ziren uztailaren 3ko 579/2002 Foru Aginduaren bidez. Aipatutako Arauen Ondare Historiko eta Arkeologikoa Babestu eta Kontserbatzeko X. tituluan, erreferentziako eraikina "udalerrri mailan babesteko proposatutako ondasun higiezin" gisa dago jasota, Aziluko 4. zenbakiko udaletxearen 37. zenbakiarekin.

Ondare Historiko Arkitektonikoa arautzen duen 205. artikulua hiru kategoria ezartzen ditu:

Berriazko babes dekretu bat duten kultura intereseko ondasun higiezinen zerrenda. Bertan, kultura ondasuna eta/edo babes araubidea deskribatzen dira, eta, beraz, kalifikatu eta/edo inbentariatu gisa daude adierazita.

Monumentu deklaratzeko proposatutako ondasunak, dagozkien espedienteak hasteko zain.

Udalerrri mailan babesteko proposatutako ondasunak.

Babes eta kontserbazioko X. tituluan erantsi dira, 2002. urtean Plangintzako Arau Subsidiarioak onetsi zirenean indarrean zeuden eraikin kalifikatuak eta inbentariatuak babesteko dekretuak. Era berean, berriaz adierazten da Kultura Sailak espediente bat abiarazten duen eraikinetan baimendutako eraikuntzako esku hartzeak berehala arautuko dituela arau sektorial horrek.

Udalerrri mailan babesteko proposatutako ondasunei dagokienez, ez du aurreikusten horietako bakoitzaren dokumentazio grafikorik, ezta baimendutako eraikuntzako esku hartzeen araudian babes espezifikoak izan dezaketen arkitektura, tipologia edo kultura elementuak deskribatzeko banakako fitxarik ere. Halaber, ez da erantsi zerrendako eraikinen egungo egoerari buruzko planorik, ez eta horietako bakoitzerako baimendutako eraikuntzako esku hartzeen zerrendarik ere, egoeraren, antzinatasunaren, ondare balioaren eta abarren arabera.

Bigarrena.- Arau Subsidiarioen Aldaketaren dokumentu teknikoak Aziluko 37 zenbakiko eraikina (udaletxea) babestutako eraikinen zerrendatik kentzeko arrazoiak justifikatzen ditu memorian. Zehazten denez, jatorrian eraikinak inguruko landa arkitekturaren izaera tipikoa izan badezake ere, gerora bertan egin diren esku hartzeen ondorioz (besteak beste, zurezko estalkiaren ordez hormigoi armatuzko estalkia jartzea, lehenengo solairutik aurrera jatorrizko egitura sistema osoa kenduta), eraikinak ez ditu udalerrri babeserako beharrezko diren balioak.

Era berean, dokumentu teknikoaren memoriak azaltzen du udalak eraikinaren birgaitze integrala egiteko asmoa duela, irisgarritasun araudira egokitzuz eta udaletxearen administrazio erabilerekin bat datozen bizigarritasun baldintzak emanez, betiere lehendik dagoen eraikinen fatxadei eutsita.

Hirugarrena.- AFAko Kultura eta Kirol Sailak txosten bat bidali du, 2021eko martxoaren 5ekoa, non ondorioztatzen baita eraikinaren babes maila tokikoa dela, eta, beraz, hirigintza plangintzako katalogotik kentzeko eskumena udalarena dela, 2002tik -arau subsidiarioak onetsi zirenetik- ez baita deklaratu gaur arte EAEk oinarrizko babeseko ondasun gisa.

EAE LABek, urtarrilaren 29ko 1/2021 bilkuraren ziurtagirian, erabaki zuen ez jartzea inolako eragozpenik Iruraiz-Gaunako Plangintzako Arau Subsidiarioen 7. aldaketaren espedienteari, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena behin betiko onespren organoari bidali zion, hau da, Foru Aldundiari.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2021eko urtarrilaren 25eko txostenean jakinarazi du, loteslea ez den proposamenean, gomendatzen duela eraikina udalaren hirigintza katalogoaren barruan uztea.

Iruraiz-Gaunako udal plangintzako arau subsidiarioak onetsi zirenean, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea zegoen indarrean. Hala ere, gaur egun, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ordeztu du lege hori.

Lege horretan, udalerrri mailako babesa izateko proposatutako ondasunak "oinarrizko babesekoak" deitzen dira. 6/2019 Lege horren 8.1.c artikulua araberak:

"Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak: oinarrizko babesa jasoko dute indarrean dauden udal hirigintza-plangintzako dokumentuetako katalogoetan sartuta dauden ondasunetatik abiatuta arau zehazten diren eta lege honen 2.1 artikuluan aipaturiko kultura-balioen bat duten kultura-intereseko higiezinak, salbu eta babes berezia edo ertaina aitorturik dutenek, horiek Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta baitaude."

Nabarmentzekoa da gaur egun ez dagoela dekreturik EAEko oinarrizko babeseko kultura ondasunen erregistroa arautzeko. Beraz, erregelamendu hau onartu arte ez da egongo babes maila hori esleitzeko ondasunik. Alde horretatik, ez da nahikoa udal katalogoetan ondasun jakin batzuk sartzea oinarrizko babesa automatikoki esleitzeko. Ondorioz, ondasun higiezin bat udaleko hirigintza katalogoetatik kanpo uzteko, EAEko Kontseiluak aldeko txostena eman beharko du alde aurretik, baina Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Erregistroaren erregelamendua onartzen denetik aurrera bakarrik.

Gauzak horrela, ondoriozta daiteke Kultura Ondarearen Zentroaren txostena gomendio hutsa dela, eta ez dela erabakigarria behin betiko onespren organoarentzat; izan ere, gaur arte, eraikina ez du oinarrizko babeseko ondasuntzat deklaratu EAEk, eta ez da hura babesteko espedienterik hasi 2002tik, Arau Subsidiarioen behin betiko onespentetik, gaur egunera arte.

Hortaz, eraikina babestutako eraikinen zerrendatik kentzeko erabakia udalarena baino ez dela uste da, ez baitago nahitaezko babes sektorialik eta justifikatuta baitago horretarako iza-pidetutako Arau Subsidiarioen 7. aldaketa puntualan.

Laugarrena.- Administrazio espedientea eta dokumentu teknikoa zuzenak eta osoak dira, eta indarrean dagoen hirigintza legerian zehaztutakoa betetzen dute.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onestea Iruraiz-Gaunako plangintzako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedientea.

Bigarrena.- Arau subsidiarioen aldaketa Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 3a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

## ARAUDI ALDATUA

## 208. artikulua - Katalogoa

## 1.- HISTORIA ETA ARKITEKTURA ONDAREA.

1.1.- Euskal Autonomia Erkidegoak deklaraturako edo txostena zabalduko ondaren higiezinak.

Deklaraturako edo txostena zabalduko monumentu arkitektonikoak (EHAA, 1995-06-27):

IZENA	AUZOA
3. Jasokundearen eliza	Alaitza
13. San Martin Toursekoaren eliza	Gazeo

Deklaraturako edo txostena zabalduko monumentu multzoak (EHAA, 2000-02-11).

## Done Jakue bidea

IZENA	AUZOA
3. Jasokundearen eliza	Alaitza
11. Done Erroman eliza	Ezkerekotxa
34. Zubia	Ezkerekotxa
13. San Martin Toursekoaren eliza	Gazeo

1.2.- Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu / monumentu multzo deklaratzeko proposaturako ondaren higiezinak.

IZENA	AUZOA
1. Done Joan Bataiatzailearen eliza	Azilu
26. Aziluko errota	Azilu
5. Santa Magdalena eliza	Arrieta
7. San Andres eliza	Erentxun
16. Done Eztebe eliza	Gauna
17. Salvatierra-Gauna jauregia	Gauna
18. San Bitor basiliza	Gauna
19. Andra Mariaren Jasokundearen eliza	Gereñu
6. Etxea, 12. zk.	Langarika
22. Andra Maria Sortzez Garbiaren eliza	Langarika
28. Langarikako errota	Langarika
44. Burdinazko gurutzea	Langarika
12. Done Bikendi Martiriaren eliza	Trokoniz
14. Etxe-jauregia, 11.zk. (González de Trocóniztarren etxea)	Trokoniz

1.3.- Udalerrietan babestea proposaturako ondaren higiezinak.

IZENA	AUZOA
2. Gipuzuriko Andra Mariaren edo Santa Isabel basiliza	Azilu
4. Baserría, 12. zk.	Alaitza
46. Iturri zaharra-aska-garbitegia	Alaitza
57. Alaitzako hilerria	Alaitza
32. Arrietako errota	Arrieta
42. Iturri zaharra	Arrieta
43. Iturria-aska-garbitegia	Arrieta
8. Andra Mariaren Jasokundearen eliza	Erentxun
9. Etxea – kontzejuaren aretoa<0}	Erentxun

IZENA	AUZOA
10. Etxea, Elizalde kalea 7	Erentxun
23. Anglo-Vasco-Navarroko tren geltokia	Erentxun
24. Anglo-Vasco-Navarroko zamalanetarako nasa	Erentxun
36. Etxea, Arridundiz kalea 9	Erentxun
52. Goiko errota	Erentxun
53. Iturria–aska	Erentxun
54. Elizalde iturria	Erentxun
50. Iturri zaharra	Gauna
51. Guruztokia / gurutzea	Gauna
15. Etxea, 2. zk.	Gazeo
38. Baserria, 11. zk.	Gazeo
58. Etxea, Kale Nagusia 8	Gazeo
20. Santa Ana basiliza	Gereñu
21. Ordoñana-Luzuriaga etxea, 22. zk.	Gereñu
39. Baserria, 16. zk.	Gereñu
47. Plazako iturria–aska	Gereñu
48. Iturri zaharra–garbategia	Gereñu
49. Bola jokoa	Gereñu
Transformazio elektrikoko zentrala	Jauregi
45. Iturria–aska–garbategia	Langarika
25. Anglo-Vasco-Navarroko tren geltokia	Trokoniz
33. Trokonizeko errota	Trokoniz
40. Baserria, 27. zk.	Trokoniz
41. Baserria, 12. zk.	Trokoniz
55. Bola jokoa	Trokoniz
56. Apaiz etxea eta maisuaren etxea	Trokoniz

## 2.- ARKEOLOGIA ONDAREA.

### 2.1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK USTEZKO ZONA ARKEOLOGIKO DEKLARATU-TAKO ARKEOLOGIA ZONAK.

(Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 26ko Erabakia. EHAA, 128. zk., 1997ko uztailaren 7koa).

1	Santa Maria Magdalena eliza (B)
2	Done Erroman eliza (B)
3	San Martin Toursekoaren eliza (B)
4	Andra Maria Sortzez Garbiaren eliza (B)
5	Abitona herrixka (E)
6	San Quilez herrixka (E)
7	Santa Marina basiliza (E)
8	Argiluz herrixka (E)
10	Aba herrixka (E)
11	Luzkando herrixka (E)
12	Andra Mariaren Jasokundearen eliza (B)
13	Santa Ana tenplua (egungo hilerria) (B)
14	Done Joan Bataiatzailearen eliza (B)
15	Santa Isabel Gipuzurikoa herrixka eta tenplua (E)
16	Done Eztebe eliza (B)
17	Aguraingo konde-kondesaren jauregia (A)
18	Alborkoin herrixka eta Done Mikel tenplua (ageriko egiturarik gabea) (E)

19.	San Bitor tenplua (B)
20.	Trokonizeko jauregia (A)
21.	Done Bikendi Martiriaren eliza (B)
22.	San Martin eliza (ageriko egiturarik gabe) (E)
23.	San Andres eliza (B)
24.	Done Joan basiliza (A)
25.	Abaunza herrixka eta Andra Mariaren Jasokundearen tenplua (E)
26.	Ozabalko kokagunea (E)
27.	Llanada 20 (E)

## 2.2.- EAE-K MONUMENTU EDO MONUMENTU/MONUMENTU MULTZO IZENDATZEKO PROPOSATUTAKO ZONA ARKEOLOGIKOAK.

9	Andra Mariaren Jasokundearen eliza (B)
---	--